

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: Luis Ezeiza Herri Eskolak antolatutako jarduerak diruz laguntzea.

ESPEDIENTEA: 2026TDIR0002

INTERESDUNA: LUIS EZEIZA IKASTETXEA (IFK: S4833001C)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 3.000 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du LUIS EZEIZA IKASTETXEA-ren alde, 2026. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko. Zehazki: antzerki tailerra.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Hezkuntza teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako ezezko txostena ikusita, 2026ko ekainaren 9ko Kultura, euskara, hezkuntza eta gazteria batzordean aurkeztuta eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta LUIS EZEIZA IKASTETXEA-ren (IFK: S4833001C) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- LUIS EZEIZA IKASTETXEA-ri 3.000 euroko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoa antolatzeko: antzerki tailerra.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren zortzigarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 3.000 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.481.323.40.01 partidari egozte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026TDIR0002-Alkate erabakia/Resolución (LUIS ECEIZA IKASTETXEA)